



## Estatistika ofizialaren lorpen ugariak ospatuaz

### Autonomia Erkidegoetako Estatistika-erakunde Nagusien komunikatua <sup>(1)</sup>

**2010eko urriaren 20an izango da Estatistikaren lehen Mundu Eguna estatistika ofizialaren lorpen ugarietz herritarrek are gehiago ohartu daitezzen. Lorpen horiek zerbitzuaren, profesionaltasunaren eta osotasunaren balioetan oinarritzen dira.**

Nazio Batuek urriaren 20a aukeratu dute estatistikaren mundu eguna izateko. 2010eko leloa honakoa da: "Estatistika ofizialen lorpen ugariak eta zerbitzuaren, osotasunaren eta profesionaltasunaren balioak ospatu". Eguneroko beraien lanarekin estatistika publikoa garatzen eta hedatzen laguntzen duten erakundeak eta profesionalak omendu nahi dira. Autonomia erkidegoetako estatistikako erakunde publikoek komunikatu honen bidez bat egiten dute ospakizunarekin.

Estatistika ofizialaren xedea da gobernuari, enpresei, ikertzaileei eta gizarteari, oro har, kalitate handiko informazio estatistiko fidagarria eta inpartziala eskaintzea, politiken, ikerketen eta azterketen formulazioa oinarritu ahal izateko.

Autonomia erkidego desberdinetako Autonomia Estatutuek berariazko eskumenak ematen dizkiete beraien xedeetarako estatistiketarako eta horren ondorioz jarduteko legezko markoa dute guztiek.

Espainiako egitura desentralizatuak ezartzen duen informazio behar gero eta handiagoa asetzeko garatzen da autonomia erkidegoetako estatistika ofiziala. Estatistika ofizial autonomikoak berariazko ezaugarri positiboak ditu: Informazioa behar bezala bananduta lortzen da, informazioa ematen dutenak eta erabiltzen dutenak gertu ditu, eragileekin elkarriketa errazagoa dago, lurraldeko egiturari egokitutako sektoreko informazio-sistemak ezarri eta mantentzen dira, esaterako, osasun, hezkuntza edo epai arloko informazio-sistemak, erregistro administratiboak diseinatzerakoan eta sortzerakoan parte hartzeko aukera dago edo laginketa prozesuak lurraldeen esanahi egokiarekin egiten dira.

Europako Estatistikaren Jardunbide Egokien Kodean eta Nazio Batuen *Estatistika Ofizialen Oinarrizko Printzipioetan* adierazitako printzipioen arabera garatzen du bere jardura estatistika ofizialak. Printzipio horien xedea informazio zehatza, fidagarria, irisgarria eta argia lortzea dira. Horretarako, estatistiko publikoek independentzia profesional egokia lortu behar dute eta beraien objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko beharrezko baliabideak eman behar zaizkie.

Erakunde estatistikoen arteko koordinazio eta lankidetzak lanak funtsezkoak dira. Autonomia erkidegoetako estatistikako bulego ofizialek hiru mailatan egiten dute beraien *koordinazio* lana: *Sistema estatistiko propioan*, eskualdeko estatistika publikoko unitate desberdinen lana koordinatuta; *gainerako erkidegoetako sistema estatistikoekin*, autonomia erkidegoetako estatistika-jardunaldien (JECA) bidez eta esperientzia metodologikoak trukaturik eta hirugarrenen, *estatuko sistema estatistikoarekin* Lurralde Arteko Estatistika Batzordearen bidez, lankidetzak-hitzarmenak eginda, laneko taldeak sortuta metodologiak lantzeko eta informazioa

batera bildu eta trukatzeko prozesuak erabilia. Hori guztia gizarteari zerbitzurik onena eskaintzeko.

Autonomia erkidegoetako estatistika-zerbitzuek ahalegin handiak eta baliabide ugari erabiltzen dituzte estatistika ofizialen kopurua eta kalitatea hobetzeko eta horretarako langile teknikoak gero eta kualifikatuagoak dira. Horren guztiaren bidez, estatistika erabilia gero eta gizarte bidezkoagoa lortzen lagundu nahi dute.

(1) Komunikatu hau Autonomia Erkidegoetako Estatistikako Bulego Nagusiek sinatu dute:

Andaluzia: Andaluziako Estatistika-institutua  
Aragoi: Aragoiko Estatistika-institutua  
Asturias: Asturiasko Estatistika-institutua.  
Balear Uharteak: Balear Uharteetako Estatistika-institutua  
Kanariar Uharteak: Kanarietako Estatistika-institutua  
Kantabria: Kantabriako Estatistika-institutua  
Gaztela-Mantxa: Gaztela-Mantxako Estatistika-institutua  
Gaztela eta Leon: Estatistikako zuzendaritza nagusia  
Katalunia: Kataluniako Estatistika-institutua  
Extremadura: Extremadurako Estatistika-institutua  
Galizia: Galiziako Estatistika-institutua.  
Madrilgo Erkidegoa: Madrilgo Erkidegoko Estatistika-institutua  
Murtziako Eskualdea: Murtziako Estatistikako Eskualdeko Zentroa  
Nafarroa: Nafarroako Estatistika-institutua  
Errioxa: Errioxako Estatistika-institutua.  
Euskal AE: Euskal Estatistika Erakundea  
Valentziako Erkidegoa: Valentziako Estatistika-institutua.